



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko azaroaren 26a

42. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, zeinaren bidez kreditu-gehigarri bat ematen baita Cener-Ciemat Fundazioa finantzatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da familiek beren seme-alabentzako ikastetxea eta erlijio-prestakuntza aukeratzeko duten askatasunaren aldeko aldarria egin dezan. Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legea aldatzeko proiektu bat aurkez dezan, errentaren eredu aktiboago bat ezartzeko. Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu du (6. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Salvadorko Errepublikako Fiskaltza Nagusiari, Justiziako Gorte Gorenari eta Osasun Ministerioari eskatzen baitie Evelynen nahiz bere egoe-ran dauden emakume guztien osotasunaz eta segurtasunaz arduratu daitezen. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hiesaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aintzatetsi egiten baitu Euskaltzaindiak bere historiako 100 urte hauetan egindako lana. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak uste baitu beharrezkoa dela beste espetxe-politika bat. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, KirolPlus txartel birtualari buruzkoa. Jabi Arakama Urriaga jaunak egin du (10. or.).

—Galdera, kultur ohiturei eta praktikei buruzko 2018-2019 Inkestari buruzkoa. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea (10. or.).

—Galdera, kontziliazioaren, ardurakidetzaren eta zainketen banatzearen arloan aurrera egiteari begira Ekin-tza Planeko neurri beharrezko eta urgenteenak identifikatze aldera ordezkari sindikal eta feministarekin lan egiteko Funtzio Publikoaren Mahai Orokorra eta Berdintasunaren Kontseilua deitzeari buruzkoa. Lehendakari-zako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea (11. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Mahaiko erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuaren domina ematen zaio Euskaltzaindiari, bere mendeurrenaren ospakizunaren kariaz (12. or.).

—Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako proposatu beharreko kidea izendatzea (13. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—4/2019 Foru Lege Dekretua, urriaren 23koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri batzuk onesten dituenak. Osoko Bilkurak baliozkotu du (14. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, zeinaren bidez kreditu-gehigarri bat ematen baita CENER-CIEMAT Fundazioa finantzatzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko azaroaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, CENER-CIEMAT Fundazioa finantzatzeko kreditu-gehigarri bat ematen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2019ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, zeinaren bidez kreditu-gehigarri bat ematen baita CENER-CIEMAT Fundazioa finantzatzeko

ATARIKOA

CENER-CIEMAT Fundazioa irabazi-asmorik gabeko fundazio bat da. Haren helburu soziala da ikerketa zientifikoko jarduerak egitea, teknologia garatzea eta intereseko berrikuntzak sustatzea energia berriztagarrien sektorean. Fundazioaren patronatu-kideak honako hauek dira: Nafarroako Gobernua (%49), Estatuako Administrazio Orokorra (%49) eta Automozioa eta Mekatronika I+G Fundazioa (%2).

Bi administrazioen konpromisoa da ekarpen berdinak egitea CENER Fundazioaren funtzionamendu-beharrei kasu egiteko. Beharrak ikusita, erabaki zen Estatuak gastu arruntetarako eta langile gastuetarako ekarpenak eginen zituela, eta Nafarroako Gobernuak, berriz, maileguak amortizatzeakoak.

2018ko abenduaren 11n, Patronatuak entitatearen 2019ko aurrekontuak onetsi zituen, non aurreikusita baitago ekitaldi horretan 6.324.884 euro egiten dituzten maileguak itzultzea.

Fundazioaren Patronatuak, 2018ko abenduaren 11n egindako bilkuran, onetsi zuen 2018-2021

Bideragarritasun Plana berrikustea. Plan horretan aurreikusita zegoen Nafarroako Gobernuak 4 milioiko ekarpena egitea urtero, maileguak amortizatzeako.

2019ko ekitaldiko gastu-aurrekontuan, "I+G+b Energia. CENER-CIEMAT Fundazioari funtsak ematea maileguen amortizaziorako" izeneko 820005-82100-7309-467300 partidan, horretarako aurrekontu-kontsignazioa aurreikusi da, hasiera batean 900.000 euroko kreditua duena.

Dena dela, Fundazio horrek helburu horretarako dituen beharrak 4.000.000 eurokoak dira. Hori dela eta, beharrezkoa da 3.100.000 euroko kreditu-gehigarri bat ematea.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta dagoen kreditua aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko duela Nafarroako Parlamentura, kreditu-gehigarri bat ematekoa. Artikulu horren 2. apartatuak ezartzen du foru lege proiektu horretan zehaztu behar dela zein baliabide diren egin nahi den gastu handiago hori finantzatzeko dutenak, eta baliabide horiek edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuk izan daitezkeela, are Parlamentuak zuzenketen ondorioz berariaz onetsitako kredituetatik sortzen direnak.

1. artikulua. Kreditu-gehigarria ematea.

3.100.000 euroko kreditu-gehigarria ematen da CENER-CIEMAT Fundazioaren finantzaketa-beharrei erantzuteko.

Gehigarri hori aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da:

Partida	Zenbatekoa
820005 82100 7309 467300, "I+G+b Energia. Funtsak ematea CENER-CIEMAT Fundazioari maileguen amortizaziorako" izena duena.	3.100.000

2. artikulua. Kreditu-gehiarriaren finantzaketa.

Kreditu-gehiarri hau finantzatuko da beheko taulan agertzen diren aurrekontu-partidetako kredituaren kargura; partida bakoitzetik honenbeste:

Partidaren izena	Zenbatekoa
820000 82000 2276 467300, Mandatua CEIN erakundeari. Laguntzen kudeaketa	153.770,52
820000 82300 2273 421100, Informatika zerbitzuak	23.059,73
820000 82300 6050 421100, Bulegoko altzariak eta ekipamenduak	24.729,98
820000 82300 6094 421100, Modernizazio proiektuak	90.760,63
820001 82200 7455 425200, NUP. L9 Biltegitratze eta elikatze sistema	197.500,00
820001 82200 7609 425204 Iruñeko Udala. Stardust proiektua	96.400,00
820002 82200 6019 456200, Meatze-lanek ukitutako eremua lehengoratzea	87.183,73
820004 82200 2276 421300, Laguntza teknikoa, kontrola eta ikuskapena	16.177,38
820004 82200 4809 421300, Langile taldearen prestakuntza eta teknikarien birziklatzea	24.910,00
820005 82100 4400 467300, Transferentziak CEIN erakundeari. Spinoff enpresa-berrikuntzaren dinamizazioa, unibertsitateak eta LHko ikastetxeak	27.667,00
820005 82100 4701 467302, Ikertzaileak eta langile teknologikoak kontratatuzko laguntzak; industriako doktoregoak; ikertzaileen mugigarritasuna	50.005,67
820005 82100 4809 467300, Langile taldea prestatzea eta teknikariak birziklatzea	12.000,00
820005 82100 4819 467305, Zentro teknologikoen eta ikerketa erakundeen jarduera ez-ekonomikoetarako laguntzak	250.000,00
820005 82100 7701 467303, I+G proiektuetarako dirulaguntzak, Nafarroako 2014-2020 EGEF PE	1.109.866,22
820005 82100 7701 467305, I+G proiektu estrategikoetarako dirulaguntzak. Nafarroako RIS3	935.969,14
GUZTIRA	3.100.000,00

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da familiek beren seme-alabentzako ikastetxea eta erlijio-prestakuntza aukeratzeko duten askatasunaren aldeko aldarria egin dezan.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita familiek beren seme-alabentzako ikastetxea eta erlijio-prestakuntza aukeratzeko duten askatasunaren aldeko aldarria egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (26.3 artikulua), Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak (2. artikulua) edo EBren Oinarrizko Eskubideen Gutunak (14. artikulua) oinarrizko honako bi auzi hauetan jartzen dute azpimarra:

1. Pertsona orok dauka hezkuntzarako eskubidea.

2. Estatuak errespetatu egiten dute gurasoen beren erlijio, filosofiako eta pedagogiako sines-

teen arabera beren seme-alaben hezkuntza eta irakaskuntza aukeratzeko duten lehentasunezko eskubidea.

Hortaz, botere publikoek bermatu egin behar dute familiek beren seme-alabentzat nahi duten hezkuntza-mota erabakitzeko askatasuna, demokraziaren eta bizikidetasunaren printzipioekiko nahiz oinarrizko eskubide eta askatasunekiko errespetua bermatzen dela zainduta betiere.

Esparru horretatik kanpo, familiei inork ere ezin die ezarri eskola publikoa edo pribatua; irakaskuntza laizista bat edo erlijio-balioetan oinarritutako irakaskuntza; eskola mistoa edo berezitua. Izan ere, gurasoak dira beren seme-alaben irakaskuntzari begira egokiena iritzitako ikastetxea aukeratzeko eskubidearen titularrak, eta gurasoak dira, orobat, beren seme-alabek eskolan erlijio-irakaskuntza jasotzea nahi duten ala ez erabaki behar dutenak.

Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua irakaskuntza-askatasuna aitortzen du, zeinen barruan sartzeko baita, besteak beste, "gurasoen eskubidea dela seme-alabek jaso dezaten beraien sinesmenekin bat datorren heziketa erlijiosoa eta morala". Alegia, Konstituzioak eskubide hori aitortzen eta bermatzen du.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 84.1 artikulua, berriz, eskubide konstituzional hori zehazten du:

"Hezkuntza-administrazioek ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko aukera arautuko dute eta, horretarako, hezkuntzarako eskubidea, berdintasun-baldintzetan sartzeko aukera eta gurasoen edo tutoreen ikastetxea aukeratzeko askatasuna bermatuko dituzte".

Hori guztia gorabehera, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako jarduneko ministroak jendaurrean adierazi du gurasoek erlijio-irakaskuntza edo ikastetxea aukeratzeko eskubidetik inolaz ere ezin dela ondorioztatu hori Konstituzioaren 27. artikuluan ezarritako irakaskuntza-askatasunaren parte denik.

Hortik ondoriozta daitekeenez, Konstituzioak ez du babesten gurasoek beren seme-alabentzat nahi duten irakaskuntza-mota ematen duen ikastetxea aukeratzeko askatasuna.

Navarra Sumaren ustez, irakaskuntza-askatasuna oinarritzko eskubide bat da demokra-

zian, Konstituzioak askatasun hori bermatzen du eta Konstituzio Auzitegiaren epai ugarik hori bera berresten dute. Horrenbestez:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du familiek beren seme-alabentzako ikastetxea eta erlijio-prestakuntza aukeratzeko duten askatasunaren aldeko aldarria egin dezan, Konstituzioak babestutako eskubide bat baita hori.

Iruñean, 2019ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legea aldatzeko proiektu bat aurkez dezan, errentaren eredu aktiboago bat ezartzeko.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legea aldatzeko proiektu bat aurkez dezan, errentaren eredu aktiboago bat ezartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitakoa den Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

2016an Parlamentuak onetsi egin zuen, Geroa Bai, EH Bildu, Podemos Ahal Dugu eta Izquierda

Ezkerrak aldezturiko Nafarroako Gobernuak proposaturik, azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legea, Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubi-deak arautzen dituen. Laukoa osatzen zuten alderdiek emandako aldeko botoarekin onetsi zen. Unión del Pueblo Navarrok, Alderdi Popularrak eta Nafarroako Alderdi Sozialistak, ordea, aurkako botoa eman zuten.

Onetsi zenetik hiru urte iragan ondoren, datuek, zoritxarrez, arrazoia ematen diete lege horren aurka bozkatu zuten alderdiei; izan ere, datu horiek erakutsi dute errenta jasotzea ez dela ongi lotzen enpleguarekin eta gizarteratzearekin. Horrenbestez, nahiz eta, jasotzaileen diru-sarreen igoeraren ondorioz, hobera egin duten pobrezia-arekin lotutako zenbait adierazle, okerrera egin da beste askotan, Nafarroak halatan galdurik pobrezia eta gizarte bazterketako tasa baxuagoi esker izan ohi zuen lidergoa, 2018ko FOESSA txostenak eta AROPE tasak islatzen duten moduan. Gainera, jasotzaileen laneratzeari buruzko datuak ikusirik, % 30era baino iristen ez direnak, pertsona horietako askorentzat ez da lortu laneratzearen helburua.

Horregatik guztiagatik aldaketa bat behar da, aldaketa sakona gure ustez, funtzionatzen ez duen eredu batean: eredu horrek ez du funtzionatzen, ez duelako lortzen bere jasotzaileentzat bilatzen den emaitza, zeina baita gizarteratzea eta laneratzea. Aldaketa hori ezin da geroratu Gober-

nuak 2020ko bukaeran ebaluazio bat egin eta 2021ean aldaketa bat ekarri arte, zeren eta aldatu gabe uzten den egun bakoitza pertsona asko bergizarteratzeko aukera galdu bat baita.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiazten du foru legea aldatzeko proiektu bat ekar dezan Parlamentu honetara, kontuan har-

tuko duena errentaren eredu aktiboago bat, hura jasotzeko eskubidea hasieratik lotuta utziko duena ibilbide sozialak eta/edo enplegarritasuna hobetzekoak egitearekin, enpleguarekin argiago uztertuta egon dadin, eta jasotzaileendako laguntza profesionala sendotuko duena.

Iruñean, 2019ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Salvadorko Errepublikako Fiskaltza Nagusiari, Justiziako Gorte Gorenari eta Osasun Ministerioari eskatzen baitie Evelynen nahiz bere egoeran dauden emakume guztien osotasunaz eta segurtasunaz arduratu daitezen.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Salvadorko Errepublikako Fiskaltza Nagusiari, Justiziako Gorte Gorenari eta Osasun Ministerioari eskatzen die Evelynen nahiz bere egoeran dauden emakume

guztien osotasunaz eta segurtasunaz arduratu daitezen; izan ere, genero-aurreiritzietan oinarrituta leporatzen baitaie haurdunaldia borondatez eten izana” (10-19/DEC-00082).

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hiesaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Hiesaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin; hori dela-eta, Hiesaren aurkako Nafarroako Batzorde Hiritarrarekin eta Sare Elkartearekin batera, ekitaldi bat antolatu du Legebiltzarraren atalondan azaroaren 28an, 12:00etan.

2. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du arlo horretan lan egiten duten gobernu kanpoko erakundeentzako behar adinako ekarpen ekonomikoa egin daitezen sustatzeko..

3. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko dekretua esparru sozio-sanitarioan eta Skolaeren bidez hezkuntzaren esparruan modu orokorrean eta urgentziaz aplikatze aldera giza baliabidez eta baliabide materialez zuzkitzea.

4. Nafarroako Parlamentuak sustatuko du Hiesari buruzko prestakuntza berezia irakasleentzat eta esparru soziosanitarioko profesionalentzat; bereziki, oinarrizko osasun laguntzakoentzat.

5. Nafarroako Parlamentuaren ustez, GIBak “gaixotasun infekzioso-kutsakor” gisa duen katalogia erretiratu beharra dago.

6. Nafarroako Parlamentuaren ustez, GIB-hiesaren kontrolerako programa berreskuratu beharra dago, erreferentea baita herritarrentzat.

7. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du GIBarekin bizi diren pertsonetikiko diskriminazioa desagerrarazteko neurriak bultzatzen jarraitzeko.

8. Nafarroako Parlamentuak erabaki du bere fatxada abenduaren 1ean gorriz argizatzea” (10-19/DEC-00083).

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aintzatetsi egiten baitu Euskaltzaindiak bere historiako 100 urte hauetan egindako lana.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak aintzatetsi egiten du Euskaltzaindiak bere historiako 100 urte hauetan egindako lana.

2. Nafarroako Parlamentuak aintzatetsi egiten du euskara batua sortu izana zer garrantzitsua izan den euskararen historian eta, orobat, euskararen normalizazioan, ezinbesteko tresna izan baita euskara bizitza sozialaren esparru guztietan normaltasunez hedatu ahal izateko.

3. Nafarroako Parlamentuak bere aintzatespena eta esker ona adierazi nahi die euskararen estandarizazioaren aitzindariari nahiz estandarizazioan parte hartu duten pertsona eta

elkarteei, eta bereziki aintzatesten du Euskaltzaindiaren jardunbide osoa nahiz jarduera akademiko eta historikoa; batik bat, euskaren batasunari begira egindako lan eta ekarpen guztia.

4. Nafarroako Parlamentuak uste du maila guztietan duindu behar dela euskararen irudia, eta Euskaltzaindiak, zeinarekin urteak baitaramatzagu lanikidetzan, horretan lagundu du.

5. Euskaltzaindiari urrezko domina ematean, euskara –lingua navarrorum, gure erkidegoaren hizkuntza berekia eta erakundeetatik zaintzen jarraitu beharreko altxorra– zaintzeko eta hedatzeko jardunbide osoa aintzatesten ari da Nafarroako Parlamentua”. (10-19/DEC-00084).

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak uste baitu beharrezkoa dela beste espetxe-politika bat.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuaren ustez, beste espetxe-politika bat egin behar da, askatasunaz gabetzeko zigorrak gizarte- eta familia-loturak

dituzten lekuetatik urrun betetzea ekidinen duena eta senitartekoekiko nahiz hurrekoekiko harremana erraztuko duena” (10-19/DEC-00085).

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, KirolPlus txartel birtualari buruzkoa.*JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkeztutako galdera, KirolPlus txartel birtualari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urtiagak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Kultura eta Kiroleko kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

KirolPlus txartel birtual bat da, udalen kirol zerbitzuetan izena emandakoei ahalbidetzen diena programari atxikitako beste herri batzuetako kirol instalazioetan sartzea. Lizarran eta Aiegin orain dela hilabete batzuk abian jarri eta gero, honako hau galdetzen diogu kontseilariari:

Zure departamentuak zer balorazio egiten du KirolPlus txartel birtualari dagokionez?

Iruñean, 2019ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga

Galdera, kultur ohiturei eta praktikei buruzko 2018-2019 Inkestari buruzkoa.*KULTURA ETA KIROLEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkezturiko galdera, kultur ohiturei eta praktikei buruzko 2018-2019 Inkestari buruzkoa, Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetu dadin, Kultura eta Kiroleko kontseilari andreak erantzun dezan.

Galdera 2019ko urriaren 18ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/POR-00214).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, kontziliazioaren, ardurakidetzaren eta zainketen banatzearen arloan aurrera egiteari begira Ekintza Planeko neurri beharrezko eta urgenteenak identifikatze aldera ordezkariak sindikal eta feministarekin lan egiteko Funtzio Publikoaren Mahai Orokorra eta Berdintasunaren Kontseilua deitzeari buruzkoa.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEN, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Patricia Perales Hurtado andreak galdera bat aurkeztu zuen, kontziliazioaren, ardurakidetzaren eta zainketen banatzearen arloan aurrera egiteari begira Ekintza Planeko neurri beharrezko eta urgenteenak identifikatze aldera ordezkariak sindikal eta feministarekin lan egiteko Funtzio Publikoaren Mahai Orokorra eta Berdintasunaren Kontseilua deitzeari buruzkoa. Xedatzea aipatu

galdera Lehendakariak, Berdintasunen, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetu dadin, Lehendakariak, Berdintasunen, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari jaunak erantzun dezan. Galdera 2019ko azaroaren 19ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/POR-00283).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Mahaiko erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuaren domina ematen zaio Euskaltzaindiari, bere mendeurrenaren ospakizunaren kariaz.

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko azaroaren 25ean eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Aurten, Euskaltzaindiak bere sorreraren mendeurrena ospatzen du, zeina Nafarroako Foru Diputazioaren eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko aldundien bultzadaz mamitu baitzen.

Bere ehun urteko bizitzan zehar, Euskaltzaindiak ezinbestekoa den lan bat egin du euskararen esparru sozial, kultural eta intelektualean, bere fundazio-xedeak betetzearen, zeinak bideratuta baitaude euskararen eta euskaldunen eskubideak zaintzera, ikerketaren, gramatika-arauak jaulkitzearen eta herritarrengan erabilera sustatzearen bidez.

Nafar herriak bere kultur ondarearen osagai nagusi eta behinenetarikotzat hartu du eta hartzen du euskara, eta beti defendatu du, Parlamentu honek 2005eko abenduaren 12an onetsiriko adierazpen instituzionalean egin bezala, honako hau: "euskara Europako hizkuntzarik zaharrena dela jotzen da, eta nazioarteko kultur ondarearen parte da".

Halaber, nafar gizartearen osotasunak amankomunean duen sentimendua da nafar erakundeek eginkizuntzat daukatela euskara Nafarroako berezko hizkuntza bezala defendatzea, bai eta gaztelania ere; horregatik, historian zehar borondate argi bat tankeratu da, denboran zeharreko herri-nahian errotua eta gurasoengandik seme-alabengana belaunaldiz belaunaldi hamaika bider eskualdatua; borondatea, hain zuzen, uko egin ezineko ahalegin bati bultzada ematekoa, xedetzat duena bermatzea euskarak merezi duen errespetua eta etorkizunari begira behar dituen iraupena eta babesa.

Langintza horretan, Euskaltzaindiak oinarritzko zeresana izan du, bere sostengu nahitaezkoa eman baitio euskarak nafar gizartearen baitan presentzia, erabilera eta sustapena izateari eta Lingua Navarrorum delakoa beren komunikazio bide nagusi gisa darabilten nafar herritarren hizkuntz eskubideen defentsa sustatzeari.

Bestetik, Euskaltzaindia ezinbesteko erreferentzia da euskaldunen artean euskararen erabilera normalizatzen laguntzen duten hizkuntz arauak ezartzeko, eta halaber zaie oinarri-oinarritzko aholku- eta lankidetzeta-iturri nafar erakundeei, gizarte- an euskara garatu eta sustatzeaz denaz bezainbatean.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Euskaltzaindiaren mendeurrenarekin bat egiteko bere nahia, hain zuzen Euskaltzaindia delakoan gure gizarte osoaren mesedetan euskararen erabilera duindu eta sustatzeko ahaleginak eta lanak hobekien uztartzen dituen erakundea.

Ondorioz, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren domina Euskaltzaindiari ematea, bere mendeurrenaren ospakizunaren kariaz.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako proposatu beharreko kidea izendatzea.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko azaroaren 21ean egindako bileran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“1. Hugo López López jauna izendatzea Nafarroako Parlamentuak proposaturiko Nafarroako Kontseiluko kide.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 2019ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

4/2019 Foru Lege Dekretua, urriaren 23koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri batzuk onesten dituena.

OSOKO BILKURAK BALIOZKOTU DU

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko azaroaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, baliozkotu zuen 4/2019 Foru Lege Dekretua, urriaren 23koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri batzuk onesten dituena. Foru lege dekretu hori 2019ko urriaren 31ko 216. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2019ko azaro-

aren 8ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki horiek argitara daitezen agintzen dut.

Iruñean, 2019ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
